

Negoiazioa etengabe luzatu ordez, langileon aldarrikapenei erantzun behar die SEAk

Gaur, ekainaren 30ean, Arabako metalgintzako laugarren greba eguna burutu da. Berriro ere, sektoreko milaka langile atera dira kalera, mobilizazio ezberdinetan parte hartuz eta haien lantegietako produkzioa geldiaraziz.

Horrela, hainbat enpresetako langileek modu masiboan bere egin dituzte sektoreko aldarrikapenak, eta hauek defendatzera atera dira. Besteak beste, herrialdean erreferente diren SNA Europe, SDA Factory, Alestis, Inauxa, Jez, Tubacex edota Condesa bezalako enpresetan produkzioa geldiarazi da. Hainbat eta hainbat tailer txikitan ere jarraipena zabala izan da.

Gainera, beren eskubideen defentsan, hitzarmenen alde edo lanpostuen defentsan borrokan dauden enpresetako langile eta Batzordeek bat egin dute greba egunarekin eta eguerdian Gasteizko kaleak bete dituen manifestazioarekin. Esanguratsuena Mercedes bera, sektoreko eta herrialdeko enpresarik handieneko langileek haien hitzarmenaren defentsan grebara deituak egonik, sektoreko mobilizaziora ere gerturatu dira. Baina ez dira bakarrik izan: Olazabal y Huarte edota Laminaciones Arregui ere gehitu dira gaurko egunez, dinamika osoan zehar egin duten bezala.

Izan ere, empresa hautekako arazoak sektorekoak ere badira. Besteak beste, lanaldi altua, KPI-aren azpiko soldata igoerak, malgutasun izugarria, lan osasuna, eta abar luze bat, enpresetan zein sektoreko problematiken parte dira.

Hori horrela, SEAr exigitzen diogu jarrera harroputzak eta arduragabeak alde batera utz ditzala eta gaurkoan berriro ere batu diren milaka langileren ahotsa entzun dezan, sektoreak zein langileek behar eta merezi dituzten edukiak mahaira ekar ditzan. Pilota SEaren teilatuan dago, bilerak bertan behera utzi eta negoziazioa etengabe luzatu ordez, langileon aldarrikapenei erantzun behar die.

Dagoeneko irailerako beste 3 greba egun deituta daude. Patronalak ez badu hurrengo asteetan negoziaketarako borondaterik erakusten, mobilizazio eta lanuzte dinamikarekin jarraituko dugu.

Euskal Herrian, 2022ko ekainaren 30ean